

ETXEAN TRATU TXARRAK JASATEN

DITUZTEN EMAKUMEENTZAKO

SEGURTASUN-PLANA

(2002-2004)

Erakunde arteko Hitzarmenaren Segimendu Batzordea

## **SARRERA**

Emakumeek familiaren esparruan jasaten duten indarkeria da, zalantzarik gabe, une honetan euskal gizarteak aurre egin beharreko arazorik larrienetako bat. Azken urte hauetan, Euskal Autonomia Erkidegoan etxeko tratu txarretan sorburua zuten 700 salaketa aurkeztu dira, batez beste. Alabaina, salaketa horiek benetako arazoaren zati ñimiño bat baino ez dute islatzen; izan ere, benetan gertatzen diren kasuen %10-30 soilik salatzen direla uste da. Arrazoi ugari aipa ditzakegu eraso horiek zergatik ez diren salatzen argitzeko (mendekotasun ekonomikoa, mendekotasun psikologikoa, eskubideak eta eskuragarri dauden baliabideak ez ezagutzea, Justiziarekiko konfiantzarik eza eta abar), baina horietan arrazoi nagusia biktimek errepresaliei dieten beldurra da. Gainera, beldur hori erabat justifikatuta dagoela esan behar; izan ere, egoera horretatik irteteko aurrerapausoak ematen diren neurrian (salatzea, gizarte-zerbitzuetara jotzea, banantzeko izapideak hastea), nabarmen areagotzen da lesio larriagoak sarriagotan jasateko arriskua.

Hori dela eta, biktimek murgilduta dauden indarkeriazko zirkulutik irteteko aurrerapausoak ematen hasiko badira, eta botere publikoetatik norabide horretan egiten diren deiek arrakasta lortuko badute, behar-beharrezkoa da emakume horien babes- eta segurtasun-mailak handiagotzea, eta beren jarrerari eutsi diezaieten laguntzea. Ildo horretan, *Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planaren* –Eusko Jaurlaritzak 1999ko abenduaren 21ean onartu zuena– eta *Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko hitzarmenaren* –2001eko urriaren 18an izenpetu zena– esparruan, segurtasun-plan bat abian jartzea pentsatu da. Plan horretan bilduko dira, hain zuzen ere, etxean tratu txarrak jasaten dituzten biktimei une honetan ematen ari zaien babesa indartzeko neurriak.

Planak 17 neurri barne hartzen ditu guztira, esku hartzeko 4 esparrutan banatuta: biktimei informazioa ematea, polizia-babesa, prozesu judizialean babestea eta gizarte-babesa. Neurri bakoitzaren ostean, hura betearazi behar duten erakunde publikoak zein diren azaltzen da.

Plan honetan aurreikusi diren neurriak abian jartzeko orduan, biktimen intimitate-eskubidea babesteko beharrezkoak diren mekanismoak eratu beharko dira, emakume horiek bigarren aldiz biktima bihurtu ez daitezen.

Plana 2002ko azaroaren 25ean sartuko da indarrean, eta indarrean segituko du 2003. eta 2004. urteetan. Planaren gauzatzearen eta ebaluazioaren segimendua Erakunde

arteko Hitzarmenaren Segimendu Batzordearen bileretan egingo da, eta berak erabakiko ditu horretarako egokiak izango diren neurriak.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko azaroaren 22a

ESKU HARTZEKO 1. ESPARRUA.

BIKTIMEI INFORMAZIOA EMATEA

Biktimak seguruago eta babestuago sentitzen dira babesten dituzten eskubideak eta eskura dituzten laguntza-baliabideak ezagutzen dituzten neurrian. Gai horren garrantziaz oharturik, Euskadiko botere publikoek ahalegin berezia egin dute biktimei informazioa emateko, hiru bidetatik, bereziki: informazio-kanpaina espezifikoen bitartez (publizitatea hedabideetan; triptikoak, gidak, liburuxkak argitaratzea...); udal oinarriko gizarte-zerbitzuak etengabean burutzen ari diren orientazio-, informazio- eta aholkularitza-zereginaren bidez; eta erkidego osoan zehar jarduten duten doako orientazio juridikoko zerbitzuen bidez, zerbitzu espezializatuagoak ematen dituzten arren.

Hala ere, beharrezkotzat jotzen da esparru horretan sakontzen jarraitzea, eta horretarako neurri hauek proposatzen dira:

### **1.1. neurria**

*Hainbat material prestatzea, euskarri desberdinetan. Horiek etxean tratu txarrak jasan ditzaketen pertsonak izango dituzte helburu, kasu horietan zer egin eta norengana jo behar duten jakinarazteko, baita segurtasun neurrien berri emateko ere.*

#### ***Inplikaturako erakundeak:***

*Lehendakaritza*

*Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila*

*Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila*

*Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila*

*Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila*

*Foru Aldundiak*

*Eudel*

*Abokatutzaren Euskal Kontseilua*

*Euskal Kontseilu Medikoa*

*Emakunde*

ESKU HARTZEKO 2. ESPARRUA.

POLIZIA-BABESA

Azken urte hauetan zehar, gure erkidegoko gorputz polizialek ahalegin berezia egin dute etxeko tratu txarren egoeren aurrean poliziaren erantzuna hobetzeko. Hala, hainbat neurri jarri dira abian, esaterako, alor horretako instrukzio espezifiko bat onartu izana, Euskal Herriko Polizia Akademian ematen diren prestakuntza-ikastaro guztietan emakumeen aurkako indarkeriaren gaiari heltzen dioten edukiak sartu izana, edo etxeko tratu txarrei eta eraso sexualesi buruzko ikastaro espezifikoak antolatu izana udaltzaintzat.

Horrekin guztiarekin ere, ahalegin handiagoa egin beharraz ohartu gara, alde batetik, behin salaketa egin ondoren, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren mehatxupearan bizi diren emakumeak babesteko; izan ere, hauek dira arrisku egoera larrienean daudenak. Bestalde, lanean jarraitu behar da une honetan dauden baliabideak emakumeentzat eskuragarriago jartzeko, babes- eta segurtasun-mailako eskari larriei behar bezalako erantzuna eman dakien.

Xede horretarako, honako neurri hauek proposatu dira:

### **2.1. neurria**

*Etxean tratu txarrak direla-eta, judizialki erasotzaileari biktimatik urruntzeko behin-behineko edo behin-betiko neurria ezartzen zaionean, biktimak babesteko polizia-sistemak aztertu eta, beharrezkoa izanez gero, ezartzea.*

#### ***Inplikaturako erakundeak:***

*Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila*

### **2.2. neurria**

*Etxean tratu txarrak jaso eta ahoz komunikatzeko zailtasunak dituzten biktimak, larrialdi-egoeran, SOS-DEIAKekin harremanetan jartzeko aukera izan dezaten, Larrialdietarako Zerbitzu Publikoak (SOS-DEIAK) fax zenbaki bat ipintzea lurralde historiko bakoitzean.*

#### ***Inplikaturako erakundeak:***

*Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila*



ESKU HARTZEKO 3. ESPARRUA.  
PROZESU JUDIZIALEAN BABESTEIA

Euskal botere publikoek etxeko tratu txarrek eragindako prozesu judizialetan esku hartzeko dituzten aukerak mugatuak dira, alor hori beren eskuduntzatik kanpo geratzen da eta. Alabaina, zenbait esparrutan esku har dezakete; esaterako, abokatuaren laguntza eman diezaiekete jarrera horien biktimei. Kalkuluaren arabera, etxean tratu txarrak jasaten dituzten pertsonen %20k baino ez dute epaiketan abokatuaren laguntzarik izaten, eta horrek, beste faktore batzuekin batera, eragiten du kasu horietako epaien %62 inguru absoluziozkoak izatea (portzentaje hori %71koa izaten da falta-epaiketetan.)<sup>1</sup>

Horregatik, biktimei lagundu eta bereziki arlo judizialean babesteko, alde batetik, abokatuaren laguntza eskaini behar zaie, berehalakoa (24 orduko guardiako zerbitzua), osoa (nola prozesu zibilentzat hala penalentzat), eta espezializatua (alor horretan prestakuntza espezifikoa jaso duten profesionalen eskutik). Bestetik, bermatu egin behar da baliabide ekonomiko urriak dituzten biktimek laguntza hori doan jaso ahal izatea.

Prozedura judizialen azkartzeak berebiziko garrantzia du tratu txarren biktimen segurtasuna hobetzeko eta delitu hauetan gertatzen den defentsa-gabezia eta zigorgabetasun inpresioa ekiditeko. Hala ere, prozedura judizialen azkartzea biktimek defentsarako duten eskubidea kaltetu barik egin beharko da. Epaiak azkartze aldera lege-aldaketak egin berri dira; dena den, ezarriko diren baliabide pertsonal zein materialek baldintzatuko dute, hein handi batean, beraien benetako aplikazioa.

Bestalde, guraso eta adin txikiko seme-alaben arteko harremanei (zaintza, komunikazioa eta ikustaldiak) buruzko erabaki judizialak, tartean tratu txarrak izan direnean, arrisku handiko egoeren sorburu izan ohi dira biktima eta adin txikikoentzat. Ildo horretan, gero eta beharrezkoagoa da langile espezializatuak edukiko dituzten zentroak sortzea, haietan erabaki horiek gutxieneko berme eta segurtasunaz bete ahal izateko.

Horregatik, neurri hauek proposatzen dira:

### **3.1. neurria**

*Erkidegoko Abokatuen Elkargo guztietan, ofiziozko eta laguntza juridikoko txanda bereziak sortzea, etxeko indarkeriaren eta eraso sexualen alorrean; hartara,*

---

<sup>1</sup> Iturria. "El tratamiento de la violencia doméstica en la Administración de Justicia en Bizkaia" ikerlana, Zaragozako Unibertsitateko Soziologia Laborategiak Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailarentzat eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarentzat egina.

*delitu horien biktima direnek abokatuen berehalako eta osoko laguntza espezializatua jasotzeko aukera izan dezaten bermatzeko.*

***Inplikaturako erakundeak:***

*Abokatutzaren Euskal Kontseilua*

*Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila*

***3.2. neurria***

*Etxeko tratu txarrak direla-eta gertatzen diren epaiketak azkartzeko, epaiketa arinak deritzenak ezartzeko eta hauen eraginkortasuna ebaluatzeko, justiziarekin lotutako erakundeekin, bereziki epaile eta fiskalekin, koordinazioa bultzatzea. Era berean, epaiketa hauek ezartzeko eta ebaluatzeko beharrezkoak diren baliabide material zein pertsonalak ipintzea.*

***Inplikaturako erakundeak:***

*Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila*

***3.3. neurria***

*Prozesu judizialak dituen hainbat faseetan, bai prebentzio fasean bai prozesuaren garapenean eta ejekuzioan, tratu txarren biktimak laguntzeko egiten den lana areagotzea; batez ere, neurri judizialak betetzearen ardura duten epaitegiekin koordinazioa bultzatuz, biktimak alderdi interesduntzat hartuak izan daitezten.*

***Inplikaturako erakundeak:***

*Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila*

***3.4. neurria***

*Erkidegoko lurralde historiko guztietan langile espezializatuak dituzten guneak sortu eta erabiltzea, guraso eta seme-alaben arteko zaintza, komunikazio eta ikustaldiei dagokienez emandako erabaki judizialak gutxieneko berme eta segurtasunaz bete ahal izateko.*

***Inplikaturako erakundeak:***

*Foru Aldundiak*

ESKU HARTZEKO 4. ESPARRUA.

GIZARTE-BABESA

Etxean gertatzen diren tratu txarrak lehen mailako gizarte-arazoa dira, eta gizarte osoaren inplikazioa behar-beharrezkoa da arazo hori desagerrarazteko. Funtsezkoa da eraso horien biktima direnek herrikideen –eta bereziki, horien ordezkari diren botere publikoen– elkartasuna eta laguntza aktiboa sentitzea. Horretaz gain, beharrezkoa da eraso horien egileek jakin dezatela euskal gizarteak ez dituela inondik inora onartzen horrelako jarrerak. Biktimek gizarte-mailako zenbat eta laguntza handiagoa sentitu, are lehenago ekingo diote tratu txarren egoeratik irteten ahalegintzeko aurrerapausoak emateari.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da Euskadiko hainbat elkarte biktimei laguntza emateko garatzen ari diren lana. Gizon, eta, bereziki, emakume askok denbora, ahalegina eta maitasuna eskaintzen diete beste emakume batzuei; hala, emakume horiek jasaten ari diren egoera gainditzen lagundu ez ezik, instituzioek nekez eskain diezazkieketen hurbiltasun fisiko eta afektiboa ere eskaintzen diete. Horregatik, botere publikoek dagoeneko zeregin horretan diharduten boluntarioen lana indartu behar dute, eta, hori ez ezik, zeregin horretan laguntzeko prest leudekeen beste pertsona batzuei horretarako erraztasunak jarri. Azken xedea boluntario-sare zabala antolatzea da, eta horiek prestakuntza egokia eta instituzioen bermea izatea, biktimekiko laguntza-, konpainia- eta segimendu-lanak egin ahal izateko.

Bestalde, udala, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazio publikoa den heinean, funtsezko esparrua da, nola emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartu eta hura errotik kentzeko, hala biktimei arreta eta laguntza egokia eskaintzeko. Horregatik, oso garrantzitsutzat jotzen da xede horretarako udal politiken garapena sustatzea, baita tokian tokiko topalekuak sortzea ere, jarduerak eta esperientziak trukatzeko, eta, beharrezkoa izanez gero, baterako ekintza errazteko.

Ildo horretan, udal esparrutik tratu txarren biktima direnei eskaintzen zaizkien baliabideen artean, aipatzekoak dira etxebizitzak eta gainerako harrera-zentroak. Horiek funtsezkoak dira etxean tratu txarrak jaso ondoren, etxea utzi eta nora joan ez duten biktimak babesteko, eta horiei aldi baterako ostatu emateko. Gure erkidegoak ahalegin handia egin du egun dauzkagun harrera-baliabideak sortu ahal izateko. Hala ere, baliabide horiek aspaldian hasi ziren ezartzen, eta une honetan beste neurri batzuk hartzea komeni da, jarrera horien biktima guztientzat kalitatezko eta osoko laguntza eskaintzearen alde oraindik ere aurrerapauso gehiago emateko.

Harrera-baliabideen esparruan egin beharreko esku-hartzea osatzeko, beharrezkoa da etxeko tratu txarren biktimek etxebizitza bat errazago eskuratu ahal izateko mekanismoak eratzea; izan ere, kasu horietarako etxebizitza-urritasuna, hain zuzen,

galarazten edo atzeratzen ari da ezinbestean familia-etxea utzi behar izan duten eta etxebizitza alternatiborik ez duten emakumeak bizimodu normalizatu batera itzultzea.

Azkenik, bada funtsezko beste alderdi bat etxean tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek indarkeriatik alde egin eta horien gizarteratzea ahalbidetzeko: lan-merkatuan sartzea. Bidezkoa da botere publikoek xede horretarako neurri espezifikoak hartzea, emakume horiek, jasandako tratu txarrak direla eta, bizitza pertsonalean eta sozialean izandako kalteen ondorioz laneratzeko duten zailtasun handiagoa arintzeko.

Horregatik, honako neurri hauek proposatzen dira:

#### **4.1. neurria**

*Azaroaren 25aren oroimenez, hedatze zabaleko instituzio arteko kanpaina bat egitea, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako konpromiso politiko, sozial eta pertsonal handiagoa lortzeko.*

##### ***Inplikaturako erakundeak:***

*Lehendakaritza*

*Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila*

*Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila*

*Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila*

*Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila*

*Foru Aldundiak*

*Eudel*

*Abokatutzaren Euskal Kontseilua*

*Euskal Kontseilu Medikoa*

*Emakunde*

#### **4.2. neurria**

*Etxeko tratu txarren edo eraso sexualen eraginez heriotza gertatzen den guztietan, biktima bizi den udalean gaitzesteko aitorpen instituzionala egitea sustatzea, baita beste gaitzespen-ekintza batzuk sustatzea ere, Euskadiko gainerako erakundeekin elkarlanean.*

##### ***Inplikaturako erakundeak:***

*Lehendakaritza*

*Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila  
Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila  
Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila  
Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila  
Foru Aldundiak  
Eudel  
Abokatutzaren Euskal Kontseilua  
Euskal Kontseilu Medikoa  
Emakunde*

#### **4.3. neurria**

*Gizarte-bitartekarien sare bat eratzea sustatzea. Haiek prestakuntza egokia izango dute, eta laguntza-, konpainia- eta segimendu-lanak egingo dituzte etxeko tratu txarren biktima diren emakumeekiko.*

##### ***Inplikaturako erakundeak:***

*Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila  
Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila  
Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila  
Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila  
Foru Aldundiak  
Eudel  
Abokatutzaren Euskal Kontseilua  
Euskal Kontseilu Medikoa  
Emakunde*

#### **4.4. neurria**

*Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko eta hura deuseztatzeko, eta indarkeria horren biktima direnei laguntza emateko eginkizunean jarduten duten elkarteentzako dirulaguntzak handitzea, dagozkien dirulaguntza-dekretuen bidez.*

##### ***Inplikaturako erakundeak:***

*Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila  
Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila  
Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila*

*Foru Aldundiak*

*Emakunde*

#### **4.5. neurria**

*Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Euskadiko Udalen Sarea osatzea. Horrek tokiko mailan bi motatako jarduerak sustatuko ditu: batetik, horrelako indarkeriari aurrea hartzea eta horren biktima direnei laguntza ematea helburu duten programak eta jarduerak ezartzea, eta, bestetik, esperientziak trukitzea eta esparru horretan burutu beharreko baterako jarduerak koordinatzea.*

##### ***Inplikaturako erakundeak:***

*Emakunde*

*Eudel*

#### **4.6. neurria**

*Euskal Autonomia Erkidegoan dauden harrera-baliabideak antolatzeke eta funtzionatzeko baldintza eta irizpideak arautzeko araudi bat lantzea, zerbitzua eskaintzean kalitatea hobetzeko.*

##### ***Inplikaturako erakundeak:***

*Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila*

*Foru Aldundiak*

*Eudel*

*Emakunde*

#### **4.7. neurria**

*Harrera-baliabideak egokitu eta sortzea, egun eskura dauden baliabideak erabiltzea desegokia gerta daitekeen egoeretan erantzun hobea emateko.*

##### ***Inplikaturako erakundeak:***

*Foru Aldundiak*

*Eudel*

*Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila*

#### **4.8. neurria**

*Etxebizitza-araudian aldundi eta udalek etxebizitzak baldintza onuragarritan erosteko dagoen erreserbaren erabilera handitzea, ondoren etxebizitza horiek tratu txarren biktima direnen emantzipazio proiektuetan erabiltzeko, pertsona*



*horiek ezin baitira normaltasunez gizarteratu, errenta-etxebizitza baten ordainketari aurre egiteko dirurik ezean.*

***Inplikaturako erakundeak:***

*Foru Aldundiak*

*Eudel*

*Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila*

***4.9. neurria***

*Etxebizitza alorreko araudia egokitzea, etxeko tratu txarren biktimei lehentasuna emateko fondo publikoz erabat edo partzialki sustatu edo finantzaturako etxebizitza bat erosteko orduan, baita etxebizitza hori erosteko laguntza publikoa eskuratzeko orduan ere.*

***Inplikaturako erakundeak:***

*Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila*

*Eudel*

***4.10. neurria***

*Etxeko tratu txarren biktima direnak prestakuntza eta lanera heltzea sustatzea, pertsona horien gizarteratzea eta laneratzea errazteko.*

***Inplikaturako erakundeak:***

*Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila*

*Foru Aldundiak*

*Eudel*